

M. 68349
F. 72278

ATV
3282

**EVSKO
OLERKIAK**
~ 1934~V.~

ZARAUZ'ko Olerti jaietarako
eratu zan olertigudura
bidaldutakoetatik
autuak

1934

*Ariztimuño'tar Joseba'ren
itzaurea*

V'gařena

EVSKATZAEAK

Gipuzkoa aldundegiko yauregian.-Donostia

Irarkola. ITXAROPENA ARGITALDARIA. - Zarautz



Zaitegi'tar Yokin

Zarautz'ko V'gañen Eusko-Olerti
Egunean saritu zan "Tori nire
edontzia"ren egilea

ITZ-AURĒA

Olerkari beñiak

Urteoro, oraindaiñokoan beintzat, ospatu ditugun Olerti gudu oiek alako doai berezia ba-dute; olerkari beñiren bat agertarazitzekoa. Olerkari ez ezagunak, edo gure artean trebeenetakoak irizten etziranak, bizkoñenetakoak dirala adierazi digute.

Aurten ere, ori bera gertatu zaigu. Etziran sasi-olerkariak saritutako bi gazteok; alaz guztiz ere ez genituen, gaurdaiño, oñenbesteko olerkaritzat yotzen. Bertso txukun eta politik egiñak ziran Zaitegi' tar Yokin eta Loidi' tar Paben, baiña ain gazterik gorengo mailara iritxiko ziranik ez genuen uste.

Epaileak, ordea, oien «Tori nire edontzia» eta «Orio'ko Umezurtza», Zaitegi eta Loidi'renak alegia, V'garen Eusko-Olerti guduan txapeldun aukeratu dituzten ezkeroz, olerki mailan gorendu zaizkigula aitortu bearean gera.

«Lizardi» eta «Loramendi» ziranak ildakoan (G. B.) olerti baratzan landare beñiak laister agertuko zirala genion. Orduantxe esana orain ere diogu: olerkari beñi

*bezin bikaiñik sortu zaizkigula eta erain-eraiñean bes-
terik ere ernaituko dala.*

*Gaurkoz, labur bederik, «Tori nire edontzia» eta
«Orio'ko Umezurtza»z mintza gaitean.*

Omero eta Mistral ditu irakasle

*Euskaleriko artzai eta arantzaleak ditu kantagai
Zaitegi jaunak bere «Tori nire edontzia»n. Artzaia eta
arantzalea izaki euskaldunetan gizonik yatoñenak gure
odolaren bikaintasuna adierazteko. Bi oien arteko, ber-
tsolaria aitutzen digu.*

*Laburkiro oso, artzaiaren bizitz menditarra eta
arantzalearen lan kementsua bertso bikaiñetan iraun
arazi nai izan du. Onela bai-deritzaio olerkariari eus-
kaldunaren bizitz berezia egokiena ezagutu-arazi lei-
kela.*

*Bertso oien mamia orixe degu; gure-guretañen iza-
kera kantatzea. Olerkiaren jantziari ere euskal-kutsua
erantsi nai izan dio. Artzaiak, mendi-tontor batean
exerita, noizik beinka aiztoz ezpel-makilaren azalean
egin dituan mañazkiak erakutsi nai dizkigu olerkariak.
Oneri eskaiñi bai-zion artzaiak ainbeste denboran lan-
dutako ezpel-makilaz egindako edontzi uraxe.*

*Edontzi ortan zer ikusi, orixe adierazten digu oler-
kariak. Irakasbide polita egitan:*

*«Tori artzai-ontzi au, olerkaria!
txatxara izan añen, abenda-odolez*

igortzi eta aren gogoaren atsez
luñindu baitizut nire oparia!

Aitonaren aitak asi zun arloa;
oianean ezpel-makila ebaki
ta pitxi bai-litzan landu du poliki...
Azaltzera noa gure lan-asmoa».

Zaitegi'ren olermenetik sortutako irakasbide berezia ote degu bide sotil eta apain auxe edo besteengatik ikasia?

«Tori nire edontzia»ren asierak Mistral'en Mireio'ko zatiren batekin zer ikusirik ba-dula esan leike.

Mireio'ko IV'garren Kantan, Ilari artzaiak Mari'ri esku-ikusia eskaintzen dio, ez uré-bitxirik ezpel edontzi ikutu-gabeko beria baizik. Ara artzaiak zuzentzen dizkion itzak: «Au esan da maiteki atera zuan kolkofik ezpelezko edontzia. Atsedeen-orduetan olakoak egiten astia ematen zuen ari baten gainean. Aizto bat, beste gabe, bikainki lantzen zitun artaldea zuzentzeko kriskitiñak eta lepo ustaiak eta ezurézko yoale-miian txori ta lore ta nai bezenbat edergailu egiten zitun. Edontzi au ikusi bazendute, etzenuten sinistuko artzai-aiztoz egiña zenik. Inguruan lañe ugari loretsua zedukan, eta bi basauntz lañea yaten, edontziaren belarritako. Beerago iru nexka zoragarri eta artzai bat zugazpean etzanda. Nexka xaxtrakak artzaiarengana urbiltzen ziren ixilka, ta saskian zeraman maats-mordoetatik bat aboratzen zioten. Ametsetan ari zan mutila, pañez esnatu, ta nexketako bat ikaratu. Eñoaren kolorea izan ez ba

ì aiek biztrik ziru ditén edontzi artan. Beria zen, oraino uki-gabea» (1).

Proventza'ko iturri onetara Zaitegi'ren irudimena urbildu danik, esan bearik ez dago. Au irakurtzekoan, nunbait, gure olerkariari bere olermena ernaitu ziztaion.

Ba-ditu, noski, zerbaitzuk Mistral'engandik yasoak Zaitegi gazteak: ori begi itxuan nabaitu leikena degu. Ongi yasoak, ordea, gizontasunak agintzen duan legera.

Olerkariari artzaiaren eskaintza: ezpel-azalean, ain egoki, gure gizonen bizikera agertzea bere-bereak ditu Zaitegi'k. Mistral'ek edontzian nexkatx batzuen yolas zoragarria erakutsi zigun: Zaitegi'k ordea, artzaiaren edontzian mamitsuago eta giarago ornitu digu ezpel azala.

Eriaren bizitza onela adieraztea egokiagoa bai-da jolasketatxo kantatzea baiño.

Hefestos'ek, bere sutegian, egindako eskudo apaiñaren beñi eman zigunean, Grezi'ko bizitz erikoia era onetan edestu zigun Omero'k. Yainkotchaz bezela yotzen zuten grezitarak, olagizonen buruzagi zan, Hefestos arek bakarrik egin zezazken Akiles'eri eskeiñi zioten eskudo ura.

Bai aldakit nik zenbat gai erikoiak urea, zilara eta burnia galdatu ondoren eskudo aretan azaltzen ziran. Etzan makala, txantxetan ere, Hefestos'en trebetasuna orelakoxe gauzak egin zezazken ezkeroz.

(1) Mistral'en Mireio, euskeraz Ormaetxea'tar Nikola (Orixe). Bilbao, 1930. 44'garren ofialdean.

Omero'k, beintzat, ikusten zituan aberastasun aiek banan-banan Iliada'ko XVIII'garren kantan bertso bikaiñetan para-para esaten dizkigu.

Bateko, gazteen tobera taldeak kalez-kale; beste-ko, eri-auzitegian asarea; emen, bi gudamutil-aldraguda bizian; an, soroan, itzaiak itzulian; urutixeago igitariak garia moztutzen; aizkenean, maasbiltzaileak mordoak karaitzen eta Grezia'n, beste gisa onetako lanbide erikoiak ure, zilar eta burni tartean ikusi zeizkien Omero'ri sinistekotan.

Ez digu nai izan Zaitegi'k Omero'n antzera Euskaleriko lanbide eta oitura guziak ezpel-edontzi oretan irauli. Orelako mirarik egiteko gure artzaiak, Hefestos bezela, yainkotxikia izan bearke zuan-ta.

Artzaien kutxañoa

Edontzi, murko eta beste ontzi azaletan eriaeren bizitz eta ipuiak marazkitzeko oitura ori zara da. Grezia'n, batez ere, zaleak ziran ontziak era oretara ornitzen eta apaintzen. Omero'ren Iliada eta Odisea'ko zati yaioenak gaurdaino ontzietan, kolorearen bidez biziturik, iraun dute. (1)

Ez da atzeritañen oitura, bakarrik, izan auxe. Gure artzaiak ere antziñetik dituzu «kutxaño» apaiñak egiten trebeak. Kutxañoa, zer dan diozu? Eusko artzaiak ezur adaretatik, ezpel eta beste zuatzetatik egiten dituzten

(1) «La poesía homérica» deritzaion liburuak dakarzkín irudiak ikuzi zenezazke. «Colección Labor», Barcelona. 1925.

edontziak. Gure gizonok, aitzo utsez Mireio'ko Ilari artzai mutilak bezela, edontzi azalak ornitzen dituzte. Batean, abere izugarrien edo arkume otzanen itxura; bestetan, gizonen edo gauza baten irudi baldartxamarrak, ari-arian, zur biguñean edo ezur gogorean irartzen dituzte.

Edontzi oiek, bada, bere izen berezia dute artzai ezpainetan: «kutxañoa». Zergatik, Zaitegi olerkariak itz polit auxe bere olerkian erabili ez ote du? Bertsoei, ain egoki, euskal kutsu edera erantsiko zion itz zar onetxek! (1)

Dana dala, gure olerkari onek aukeratutako olertibide au gure-gurea dala esan geinke, egitan. Ez da auntzaren gauerdiko estula orelako bidea aurkitu eta zailantzarik gabe bide oretatik irtenge zuzen yotzea.

Artzaintza eta aiantzaleak

Euskaleriaren bizitza erakusteko artzaiaren neke-bide menditarra eta aiantzaleen lan garatza azaltzea bezelakorik ez da noski.

Ola-gizonak baiño zeatzago eusko gogoaren izate berezia gorde izan dute basoko txabola soilean bizitako artzaiak edo itxaso zabalean buñukalari iraunkor ibili diran aiantzaleak.

(1) «Algunos casos de arte rudimentario en la etnografía actual del Pueblo Vasco. José Miguel de Barandiaran. V Congreso de Estudios Vascos. Arte Popular. Bergara. 1930. 38, g. ofian.

Gizonok, ba, ongi aukeratuak dira. «Tori nire edontzia»n artzaintza atsegintsuago landua agertzen da arantzaren aldean. Euskal kutsu geixeago ote duan artzaiak arantzaleak baiño olerkariari iruditu zaio edo.

Artzaintza-gaiak ondo ikasiak edo ikusiak ditu Zaitegi yaunak, ain biziki adierazi dizkigunerako. Artzaiaren beñi nun yakin ba-dago euskal elertian. Yoanes artzaia zala bide «Garoa»n artzaintza goraberak edestu zizkigun yaioki Agire'tar Txomin zanak.

Orain ere, ba-ditugu orelako gaietan trebe asko diran zenbaitzuk. Ez da nornai Lañekoetxea'tar B. J. idazlea, «Gorbaie'ko gaztagintzea»ren beñi ematekoan. Orialdetxo oietan Zaitegi yauna ikasia ote dan edo gera. Ala ez balitz, senideak dira bi lantxo oiek.

Leñotxo oiengandik ikusi zenezazke, artzaintzako mamitsuena eta gozoena Zaitegi'ren olerkian irakasten dala: «Udan iluntzan, —dio Lañekoetxea yaunak— eguzkia sarkalderantza yausten danean Gorbaie'ko artzaiña gauerako ituriko ura ekañita, ala eraz ba-datorchio ura bide batez ekarteko ontzia esku batean eta uruitxmakila sendoa bestean artuta, ba-doa mendi gora bere artalderantza txistuka, ala artzai-lagunekaz autuan, mendiari goiak artzen dautsoz, eta ardien atzetik yañitakoan, txistu zoñotz batzuk egiten dauz, eta ardi uxok aringa mendi bera eñeskadaka bide-zidoñak-zear txabola alderako bide artzen daue».

«Ardiak ilunabañegaz bat eltzen dira txabola aldera Aldaminpe'ko sakonera, ta emen, onaiño artzai guztienak batera etoñiañen, eñez-eñez bereztuten dira ta bakoitxa bere artesira doa, aitxañizko ormadun arte-

sira, batzuek artesi batera eta umedunak etzalekua deritxon beste artesi legor-nasaiego batera».

«Bein ardiak artesian, artzaiñak isten dau arantzamota bategaz artesi-atakea, artzen dau lenago kaikuen ordezeko kantin deritzaion zinkezko ontzia, ta ardiak batzen asten da, aurretik bere yaungoikozaletasuna agertzen daun «aitaren» eginda. Ontzia iztar-artean dauela kukurumio yarten da, uren daukon ardiari iztarretik oratzen dautso, erapea ontzi-ganeratuteraño ardia berantza dakar atzeraka, ta orduan esku biekaz ero banetatik elduta ziri-zaña beingo baten batzen dau ardia, naiz ta uxuena ta urduriena izan. Batze-orduan ardi otzana geldi, ausnarka, samea okertuta, atzealdea makurtuta egoten da, ta batzuk berez etorten dira artzaiñaren ondora» (1).

Ipiñi ditugunagatik ikasi genezazke artzaintzako lantxo oiek. Zaitegi'ren bertsoetan, ordea, atsegiñago artzaiaren egin bear auxe adierazten zaigu; atsegiñago, laburago eta argirogo ere olerki bikaiñari dagokion bezela.

Arantzaleei eskeiñitako bertsoak gutxigo dira. Aukeran, uriegi arantzaleen kemena agertzeko. Olerkiaren bi zatitxoak berdintasun gabekoak ditugu; bat oparotsu, bear dan neurian; bestea, motxegi, agian. Arantzalea batez ere lemazaia, biziki aurkeztu ondoren, ezkutatu egiten digu bereala.

(1) «Gorbaie'ko gaztagintza». Lafekoetxea'tar B. J. Itzaldiak. Bosgarren sala. 1928. Donostia. 142'garren ofialdean.

«Tori nire edontzia»ren edertasuna

Nundik datorkio olerki oneri bere sofiltasuna?

Izan leike, Zaitegi olerkariak an edo emen gaiak aurkitu izatea; baita bere olermena ere, au edo ura irakuriaz arrotu izatea. Olerki aloñean zilegi da, oñelakoxe laguntzaren bidez, luñak lantzea. Bere neurian izan ezkerro, noski. Era oñetara yokatu dulakoan gaituzu, irakurle.

Gai oiek, ordea, sakabanatuak zeuden. Irudimen labean edergaiak galdatu ditu, olermen biziari eskañak, gure idazle onek. Irudi, eredu, amets eta gogaiak, goritu ondoren, bere-bereganatu ditu olerkariak eta bertsoetara irauli dizkigu.

Bere puntuan galdatutako meatza, berdinduz, salda biurtzen dan bezela, Zaitegi'k ere edergailu guziei batasuna erantsi die, olermena bide. Batasuna, berdintasuna, edertasuna dakarkigu gure gazte onen olerkiak. Bertso egokietan yantzia, alare. Aukeran gogor txoak; agian iluntxoak. Yo beza bertso leun, gozo, eñezetara Zaitegi'k, oñetarako gai dan ezkerro.

Mamia sakona, goi indañez betea izan bedi; azala, ordea, adi-eñeza, leuna, irakurri utsakin irakurleak ulertu lezakena. Orduantxe gogoa poztutzen zaigu, edertasuna, nekerik gabe, atxitzeak liluratzen baigaitu.

Zaitegi'ren olermenak sortu lezazke edertasun ugaririk bertso eta apaldi gozoetan bere irudimen año eta oparotsuaren emaitzak irauliaz.

Loidi'tar Paben degu, saritutako olerkarietan, gazteena. Artean, bere ikasgaiak amaitu gabea.

Gaztetxoagoa zala, oraindikan, 1930'gañen urtean «Araunketa» olerki bikaiñarekin zoraturik utzi gindun. Ordu ezkeroztik, gaurko loraketa onetxen zai geunden. Ez dira izan alperikakoak gure uste oiek.

«Orio'ko Umezurtza»n Loidi'k dakarkiguna berebera du; azal eta mamiz dana, sormenean yaio zaio. Gazte bezin irudipen aberatsekoa Añorga'ko apaizgai auxe.

Saritutako poematxoaren aria biotz-ikutzeko gaida noski eta malkoak sortarazteko ere bai. Alako biozkor eragitea «Orio'ko Umezurtza»ri erantsi bai-dio!

Poemaren asieratik umezurtz agertzen digun gaztea olerkiaren aizkenerako biritan umezurtz aurkezten digu; umezurtz, guraso gabea dalako, umezurtz eguzkiaren argirik gabekoa dalako.

«Orio'ko Umezurtza» oneko onek beste alako Solferino'ko itxuaren bertsoak abestu zeikien:

*«Ene amaren begi samuñak, betiko zaizkit estali,
Maiteñoaren begi tartea bein betiko itzali...*

Bein betiko itzali.

*Eñiko festan, gazte lagunak kantuz plazara doazi,
Eta ni beltzik, etxe zokoan, iri egiten aantzi,*

Iri egiten aantzi.

Ez dira nolanaikoak ere zurtzaren leloa ezagutu arazteagatik Loidi berak apaldi yaioetan ipiñi dizkigun bertso eta asmoak. Aren zorigaiztoaren belztasuna erakustearren dizkionak gogoaren muñetaraiño dijoaztenak dira, bařena bigunduaz.

Arantzan, umezurtzak aita galdu ezkerotik, ordutik ordura, gazte gixaixoaren zerua goibeltzen du olerkariak zoritxařaren ezten latza zořoztearen... eztenaren ertzak irakurlearen biotza zauritu dezan.

Oietxek ditugu «Orio'ko Umezurtza»ren emaitzik mardulenak; olerki mamiaren asmo bikainen edertasuna, eta onek dakarkin biotz-ikutze bizia; biak iturri gardenetik bezela olerkariari bere sormen utsetik sortutakoak.

«Orio'ko Umertzurtza»ren apaintasuna

Olerki onen gaia aratz eta polita ba-da, yantzia ere neurikoa darama. Asmoak, arinka-arinka, adierazten dizkigu Loidi'k irakurlea aspertzeko bildur̄ez edo. Gogai beltz-ilunen gozagaři, ordea, mara-mara irudi yaukal eta eredu yaioz estaliak laga dizkigu apaldi geienak.

Ez bai-da asmo sotiřak sortzea naiko, olerki bikaiřa egiteko; bear bai-dira edergařitzat beste alako edergailu batzuk ere.

Edergailu oiek euskal-olerki kerari dagozkionak dituzu:

«Tolarea blai, ardatza trinko
gofi-gofi pats-kondařa

dariola azken negaŕa;
mendian bera kaŕaxiz dator
yauzika gurdi-sagaŕa».

Eta beste onelako zenbaitzuk ere. Onelaxe gure ederti kera olerkiei erantsitzen zaie (1).

Beraz, gaiez bikaiña eta irudipen aratzez aberatsa bada mamiz borobildua degu «Orio'ko Umezurtza».

Badu ere beste edergarrik olerkai onetxek; bertsoen yolaskera biuri eta arigaria alegia.

«Araunketa'ko» bertso aiek atsegin izan zitzaizkien irakurleei, zeramaten doñu egokiagatik. «Txanpan» araulariak araura zeramatala-ta bertsoak ere eraberekoak dituzu, motzak, biziak, indartsuak; baretsuago zegitela araulariak, bertsuak ere paketsuagoak eta lasaiagoak.

Era ortara tajututako bertsoak badakusgu gaurko olerkian. Bultziaren ibilketak, ez irakurtzez baizik entzutez ere bikain belarrietatik sarerazten dizkigu Loidi gazteak. Bertso yolasketa zoragarriak egitan, neurtizlari onen trebetasun bereziak sortzen dizkigunak.

«Tori nire edontzia» eta «Orio'ko Umezurtza»ren edertsunak ez ezik, beste gogo atsegingaririk ere aurkitu lezazke liburu onen barna begiak itzultzen dituanak.

ARIZTIMUÑO'TAR YOSEBA.

(1) Igaz IV'gaŕen «Eusko-olerkiak» liburuan geniona, ikus.

EUSKO-OLERKIAK

l'go

ZATIA

Tori nire edontzia!

V Eusko-Olerti Egunean Zarautz'en
1934'go Garagañilaren 10'an ospatutako
sariketan lenengo saria irabazitako oler-
kia.

Tori artzai-ontzi au, olerkaria!
txatxara izan-añen, abenda-odolez
igortzi eta aren gogoaren atsez
lufindu baitizut nire oparia!

Aitonaren aitak asi zun arloa;
oianean ezpel-makila ebaki
ta pitxi bait-litzan landu dut poliki...
Azaltzera noa gure lan-asmoa.

Belaña-mofozten ardia dakusgu:
bildotsen pakea begi-biotzetan
izaki, ordeka erdiko aitzetan
exeririk, aizto-utsez egin dugu.

Edontzi-inguruko azal-goi batean
artzai-bizitzunak irafi genitun:
Euzki biribiñā etzatera, an... ufun!
Baseliz-gailuñā yartzen du argitan.


Ufutex-makiñā artu eta artzai gaztea
txistu-yoka mendi gorantza dijoa.
Erpin-goiak igo ta ardi erdiloa
txistu zofotz otsez itzar da maitea.

Berealakoan, bidetxigor zear,
berago ikusten dan txabolara doaz
ardiak. Artesi baten bereziaz
batzekoak, itxi oi du ataka azkar.

Umedun ardiak etzalekurentza
doaz. Be-aldean, kaikua iztar-arten
loturik, badago artzai esne-batzen:
aren asmoa ba-doa ara-onuntza!

Irudin dagonez, batzu izuti-uzkur,
bestetzu otzanak dira batzekoan.
Otzanak, lepoker, ausnarka dagoan
antza du, geldirik eta ipurdi-makur.

Izuak artzaiek beregana ditu,
ontziratzerañño efape: iztañetik
oraturik dakarz. Eño banetatik
esku biaz eldu ta laixter yeixten du.



Kutxafoan artzaiak iraitako irudiak "Tori nire edontzia" k dionez

Eroberoa ba'dator txifioan...
Batutako esnez kaikua gainezka,
bits zuri afoa dula yarioka
dager irafirik ontzi azalean.

Beste goialdean bertsolari zafa,
eskuan sagardo edontzia izaki,
itz-neurtu ederaz esanaz yafaiki.
Inguruko gaztek ezpainetan pafa...

Beraxego, itxaso geldi-ezin barna
arantzale beso-aunatuak ager.
Goiznabar miñean uretan lur musker
dakuste: aize da-ta jitoan txalupa.

Txopa-aldean zutik lemazain sendoa.
Ta begiak ñir-ñir luña ikustekoan.
Begi-zimur ta ile-zuri agure izan-
—afen, zaiñak lertu zorian lepoa.

Irudi guziak bizi-bai-bizirik
ziruditen: oren ikusgafi zegon!
Ontzi befiaren usaia zerion:
egundo inork ezpai-zun edan oraindik.

Aurten, udabeñiz, buka dizut lana.
Inguruko pago pertxentak ofimin,
ta nire bafuan biotzak neskamin...
Txori bi egaka zeru garbi barna:

Ordun, zagi bizi lez biotz-azia
lauskituaz, asmo eder aratzena
ereika atera-ta, ontziaren barna
yalgi dut, iduri lafosa gofia.

Barnean asmoak irakin dagio:
gaiñeratu nitun oroipen goxoak,
ipui zañen ezti eta gogo-ikarak...
ardo zañen zilar-apaña dario.

Ikusten dezunez edontzi onetan
eusko-bizikera eden nai izan dizut:
Zure olerkien ordaiñez damatzut,
edan zazun gogoz idatzi-aufean.

Zaitegi'tar Yokin. S. I.

Kardantxīlo

Leio erdiko burni-kaiolan itxirik,
kardantxīloa abeslari:
bakafean ta beltzuri,
begien betegari zelaiak izanik.

Eguzki itzali arte, kantari txoria,
zelaiari begiraka;
eta berak oartzaka,
alaituaz ari da etsai-yauregia.

Ingurun, Udabefi: zeru, argiz oztin,
eusko-oianak pozez sur-mur,
biotz barna nexkak samur,
itxaso paketsua, ortzi iduri, urdin.

Bei taldeen muřusa, mendi-ots gozoa
eltzen zazkit belafira;
basatxorik poz-ikara,
sailean zeru barna giro onez bai-doa.

I, beñiz, kardantxiño, kaiolan oldozkor:
zoritxañez ez duk lagun
oianeko azkatasun,
Espetxeruntz atsegin-sorgiñik ez dator.

Abestu eta abestuz... ofela zimeltzen
bizi-lora edefena...
poz-katea duk etena;
Kardantxiño ¡ldiaketz ire antzekoen!

Gaztaroko pañeak ta maite liraiña
atarian utzi bear;
espetxean lagun-bakar
negar zotin gabeko atsekabe miña.

«Onela badijoa bizi-udaberri...
nere etxean, arotz antzo,
biotz-ilun igaroko
bizitza, aintzatzearen euskoen aberri.

Gaurko ilunabañean nere eritxoan yai
Txistu-otsen durundia
zeru barna etofia,
urundikan, bederen, entzun-iduri nai.

Gazte talde osoa bidetxigor zear
alai doa yai-soiñekoz;
eta alkañen iri zantzoz
biotzak atsegiñez gaiñezka ler bear.

Baiña, ni, bakar, zelai alderuntz begira:
maite-pozak gerorako
zin-ziñez, utzi bearko.
Artean, itzalpean, ametsez gogora!►

Euzki, mendi atzetik, izpiak bialtzen:
kardantxiño! margoiz margul,
eztaña, beñiz, mintzul
biurtzean, abeñi-euzkik argituren.

Zaitegi' tar Yokin, S. I.

Gure zizak

Udalenaren pafak sortua
Martxo'k eraman induna,
gogora zadan bizi, izeneko
Santu uan aren eguna.
Esku-ekusiz ez nian eman
—ez baitzegon usaiduna—
Martxo-lorea; ba duk besterik
par goxo bialtzen duna.

Udaufearen pafa da ziza
belar-koroien tartean;
inguruka ala jaiotzen dira
ortzak aufaren oiean.
Gaur, biar, etzi, zoro nabila
par ori suma-naiean,
begi ta beatz, gogo ta biotz,
argitzean, iluntzean.

Alaxen amak bulaf-aufari
deragio len-par-mufitz,
beatxingafez masaila leunduz

beingoan ez ba-da beñiz.
Gaur, biar, etzi, bafutira ni
belar-koroiak ikusiz,
igazko lafe bikainen ua
aldatu ote dan tokiz.

Amak berebat bulaf-auñari
ortzaldea araka dio:
«gaurgero ba-du», ezin-etsiaz
egunoroz orduoro,
lenengo ortza noiz ager dakion.
Bein, beñiz, uts... Noizbait gero,
len-ortza agertu. Ala nabil ni
zizetan goiz-atsaldero.

Euzki-tarteak luñari musu
noizko par egiñarazi,
aize-pilpilak berdin; nik beñiz,
—ez ba-litza musu ua aski—
biotz-ukituz, begi zofotzez
luña nai auferarazi.
Muzin egin dit: begi ta biotz
ez izan nik aski bizi!

Ba dut iloba begi-beltx beltza,
tximistaren izpia du;
biamonean goiz goiz begiak
luñera ditu zofoztu.
Luña lotsa da, bein ta betikoz
dizkigulakoz ukatu:

begi-beltx aren begiratura
ezin geiago luzatu.

Goiz-intzak paña eragin dio
belar-koroi berdeari.
Osaba poz: «gaur ire egunean
zizak dituk, Joxe Mari».
Zer ote zuten gure ziza aiek,
kalekume xangoxuri,
beinere ez'eko usai ta agoa
aurkitu iela aieri?

Intz, aize, eguzki, biotz-begien
igurtzi esan-eziña!
Gezur-munduan nekez arkitzen
dan adiskidego miña!
Ez luzaroko! Yo zian usai
ark zeruaren urdiña.
Geroztik noiz bein mizkatzen diat
udazkenaren samiña.

Ormaetxea'tar Nikola.

Erotazuri

Efeka-ertzean altza,
ertzerago efotea;
inguruetan ederen
erotako alabea.

Marti-zozoa kantaten
bidez goiko sagastian;
astotxu zaafa zamauta
nekezka, aldapa-erdian.

Efeka-ondoko bolu,
—zuria goitik beeraiño—;
gordeta daukan pitxia
eztot ikusi gaurdaiño.

Boluxuko neskatila,
—lafosa eder dirudi—
ibar osoan ezta iñor
ai ¡zeu baizen maitagafi!

Epaila lenen-egunak,
—garia aspaldi erne zan—
oraindik ezta lorarik
ezkaratzeko arazan.

Neskatil zoragarria,
—emeretzi udabari.
ire ibilkera yaioak
aundikiena dirudi.

Txakurak zaunk etxauruan,
—atak eferkan igeri—;
neskearen ezpanetan
barea loratu bedi.

Erotatxuko alabak
urezkoa dau biotza;
ai, edefa! nork leikean
entzun zukanik baietza.

Mendi-artean ibara,
efekertzean efota;
bolu aretan euskotar
neska garbi bat gordeta.

Erkiaga'tar Eusebi.

Neure aberiari

Lizardi'tar Xabier'i

Ene Abefi maite kutuna,
Amatxu laztan, samur biguna:
neure oiñaze nekeak
ta samiñaldi guztiak
zeuri ditut eskeñiak.

Izen samuñá, legun gozoa,
arbasoen odolez ezoa;
Ama'ren izen edeñá,
izen osoa: Euzkadi,
ludiko ene Abefi.

Utsune gaitza neban barnean
lo aundi batez itzartutean.
Su bañi batek piztua,
geroz, bañengo txingañá:
Abefi-maitezko indañá.

Egaz egin nai, ta ezin ega,
neure efi-lufa bai-dot ziega:
afotzen mende eroria,
burdin-estuntzez yosia,
negañez dakust Eña.

Su bafi batek bai-dot piztua
ene bañengo txingar gartsua.
Biotzean dot zauria;
suak damost min bizia,
Abeñi-aren etsia.

Su goria dot neure barnean,
bizi-ro dager so-egitean.
Su gori onek urtua
bedi estuntza-moltsua
eta Abeña azkatua.

OTOIA:

Jaungoiko altsu bardingabea,
oron Egile, Urtzi donea:
ene asaben Eña
bedi, Zeure mende ezia,
bere buru ta nausia.

Erkiaga'tar Eusebi.

Seaska utsa

Donoki eder
goi-goitik
arin eta azkar
jatxirik,
gotzon talde bat
luřetik
zerbait bilatu
gurarik,
ebilan an-or
emendik.

Aurtxo bat loak
arturik
seaskan luze
etzunik
egoanean
bakařik,
gelatxora ixil
ixilik
sartu zirean
leiotik.

Bata bestien
atzien
aufari mosu
gurien
mun egin eutsen
tartien,
belafiaren
ertzien
auxe esan bear
eutsien.

«Yaunaren zorun
edeña
sartu nai ba-dok
gogora,
jaurtirik oro
albora
etoñi adi
zerura
oraintxe geugaz
batera».

Lo egoan aur
guriak
gotzon deiari
begiak
yañi eutsozan
argiak
eta ezpantxo
goñiak

ifi bafeaz
yantziak.

Zerurantzako
bideak
direanañen
luzeak
eta aldatz goraz
beteak,
udagoiengo
aixeak
lez arin dagiz
umeak.

Gotzonak lagun
arturik
aixeak zear
luñetik
aufa goratu
zanetik,
eztago umoian
amarik
atsegintzeko
gauzarik.

Seaska apaiña
ordutik
zokoan dago
otz otzik

zedenak kalte
apufik
egin leikion
bildurik
ezpa'leuko lez,
austurik.

Ormaetxea'tar Lontzi.
Karmeldata

Ama-alabaen yarduna

Amak.—Labanka mosuz auñera
yausi nai ezpa'don bera
ala lenengo trokara,
etzadi ibili bakafik
egundo be gangarturik
ortik zear edo nondik.

Alab.—Gura neuken lez nonaitik
apurtxo baten ibilten
utziko ba'zeust bakafik
puntepioak yaurtiten,
ikusiko zeunke, ama,
ba-dakidala yolasten
eta lokatzen bertan be
dantza galantak egiten.

Amak.—Amagandik aldendurik
dabilan neskatotxurik,
iñoiz ibili ezpa'don
laban sañi egin barik;
bide neketsu-luzeak
yausi barik egiteko,
iñon be ezton ama baixen
lagun onik aurkituko.

Alab.—Nik letxe lufean oiñik
yarten dakian umerik,
lokatza artean burutik
beatzeraiño loiturik
ikusidauan begirik
eztauna dakienik;
¿egon leitike nonaitik
yauzka batzuk yaurti barik?

Ama onaren eskutik
azkatuaz bat batean
ariñeketan menditik
asi zan inguma atzean.
Baiña, labanka lokatzen
yausiko ba'zan ezpa'zan,
luzero ezpai yazean
zabunka ibili ostean,
lufera plaust osoan
zan besteraiño yauskeran,
afi bataz bekokian
zulotzar bat egin eban.
Burua zauriz mindurik
ta eskuak odoldurik
ikusiaz beste barik,
amari deiez gogotik
asi zan une beretan,
begiak bera pañastan
arin eta añapaladan
malko asko yatorkozan.

Samin zořotzez biotza
erdibituta eukala
amak diřotso zotiņa
bařuan ito ezinda:
«Edozeiņen bařegafi
izan nai ezpa'don safi
ta gaur lez mosuz auřera
safi askotan yausirik,
euki gura ezpa'dona
burua zauriz yosirik;
egundo bere gaurgandik
etzadi ibili bakafik,
edonondik gangarturik
nire esanakaz aizturik.

Miren Amagaz aizturik
ludia zear ba'zoaz,
gogoa safi loiturik
izango dozu obenaz;
baiņa Miren'i eskutik
sendo beti obatuaz,
artuko dozuz zerutik
zorunak goiko eskařaz.

Ormaetxea'tar Lontzi.
Karmeldafa

Begi-biotzak gora

Ludiaren pozkiñak ziñak uñiñetik
dirudienaren be, begiak ondotik
ertz guztietatik
yafi dautsozanik,
eztitan lez pozik,
emen eztaikit zelan egon leitiken nik.

Utzirik zerurantza doan bide leuna
gorputzaren gogoko bide loi-labana
artuten dauana,
zentzun bakoena
ta tenteltzafena
dala diñonak diño egi galantena.

Luñeko atsekabe, neke-loñen orde
eriotza ondoren ugaritasunez
zabalduteko ustez
daukozan yaz ta antzez
piloturikan lez,
daukoz Yaunak onentzat sari onak eufez.

Beti betiro izan yat gogo-gogokoa
donoki ederearen gomuta gozoa,
zorun begikoa
ta gentza osoa
dagoan lekua
egin-egiñean be dalako zerua.

Utzirik be-atseak gogotsu atzean
biotz-begiak gorantz jasoaz lufean,
gero donokian
betiraun guztian
atsegin betean
biziko gara Yaunaz zorunen artean.

Ormaetxea'tar Lontzi.
Karmeldara

Itsaso-auñean

Safitan, ameskor, leioan nazala,
begiztu daroat itsaso zabala,
ta orduan, uñen murmuran, mintzoak
ba-dantzuz ta-badauz aditzen gogoak.

Maitasun-mintzoak batzutan nau yoten
jordun itsasoa bai eder erizten!
Eusko-luñ txiki dala ta andi-miña
asetzeko gugan Goiko'ak egiña.

Ikusten dot ordun begi-betegafi,
naiz urdin azala, naiz apañez zuri;
bere murmur otzan yat atsedeen-lagun,
eta zuzpergafi bere arnas gaztun.

Bañuan yat sortzen itsasora naia,
ufutira-bear, ÷lagaturik kaia
ontzizka batean, ur gardenan zear,
noraezean yôn, ametsetan, bakar!..

Balea-afantzalên ta Elkano-ren atsak
bultzatuko dabez nire aizoialak;
eta pozik, nire zoriona abeska
noake itsasarte zurgafi-bilaka...

II

Ofo ufun batek eten dauz amesak,
pozak doaz iges, isil dira abesak.
Goibel-Ekaitza da. Begira itsasoa
asafe ebakitzen gofoto-mintzoa.

Begira Lur Ama ezereztu guraz
ondar, afi ta kai astindu ta yoaz;
begira, ¡zoroa!, zeruratu nairik
bere uin afoak puztu ta anditurik.

¡Anker!, onda-miñak yota ba-dabila
nun autsi, zer galdu ta nor ito bila;
ilgaiz uin goseak asetu eziñez;
gaisoen negafaz urak geitu naiez.

¡Bidutzi oi!, zeuri gofoto izateko
itoen amai nik biotz eskatuko;
ta alargun gazte ezin-etsiaren itzaz
zu ta zure izena gaiztetsiko dodaz.

III

Odeiak ufatuz, eguzki izpitxuak
argituten ditu ur-mendoï bitxuak.
Andiagotzen da, ¡zelako ikuskizun!
bere edeñak dakar gogora afitasun.

Afitasuna, gar, nai eta bilduñá,
goñoto, maitasun, ezespén ta guñá,
guztiok ba-dauz oin asmatzen gogoak,
bai ta aditzen bere euraen mintzoak.

Mintzo onek egoki diranean batzen
Andia'ren kanta dabe ereskidetzen.
Eurak alkartuten, ai, ba'neki, Itsaso,
dagokizun kanta zeuri egiteko.

Ametzaga'tar Bingen.

Negu-min

Lotaziġa da. Negua dator,
Mendi goienen gailuġak,
udara-aldian atsegin toki,
estali ditu eluġak.
Ixildu dira mendi-zalaren
biotz-eresi xamuġak,
eresi oiek ez ziran baizik
udazkenari aguġak.

Lotaziġa da. Gauak luze ta
egunak ezin zabaldu
sasi ta orbel, garo ta belar
eluġak ditu zapaldu.
Mendiak orain eluġa beste
apaingariġik ez al du?...
Negu ondoren apainduko dan
itxaropenik ez galdu.

Azken loreak buruz-be zimel
darioz ustel usaia,
txoriak ixil, zerua goibel,

zingiratua zelaia.
Iritxi dan lez udarak zitun
apaingafien amaia,
iritxiko da bizi bakoitza
bukatuko dan garaia.

Ekaitzaufetik guzia bare
lotan balego bezela
geldi-geldika itunagotuz
iluntzen doa goibela.
Izamenaren pozaz guziak
ofen erori daudela
¿nola liteke alaituz jaso
gure gogamen motela?

Lotazila da. Ekaitza dator
bere asafe bizian,
lengo txolarte girorik ez da
itxas inguru guzian.
Mamofo aundi sortu diranak
itxaso ta lur azpian
badirudite asi dirala
beren arteko auzian.

Turmoi ofua ta aire bufunda
batek bestea zein ausi,...
bien artean ezin ordea
geiena zein dan ikusi.
Biak dijoaz naspilaturik
ekaitz aldagoi ta guzi,

alkaŕen leian zarata biziz
biak nai dute nagusi.

Mendiz-mendi ta basorik-baso
aldagoi yasa diyoan
ekaitz indaŕak laguntzen dio
eta darama egoan.
Kabi zar utsa osto gabeko
tantai zaŕaren besoan
beste oroimen udarakorik
ez da gelditzen basoan.

Geroz ekaizkor eta bizigo
aize gordiñen saioak,
aize ta ekaitz tximist-argitan
itxas lodian yaioak.
Ez da agiri iñun ortzi urdiñik,
ez dira uŕatzen laiñoak
kazkabaŕa ta elur bisutsa
naiz bota mendiz goikoak.

Aize nastuen zufunbilotan
elur matazak dantzari
aruntz-onuntz-ka yolas egiñaz
luferontz datoz ugari.
Etxe baŕendik begiratzeko
ez da noiz naiko ikusgafi...
baiña aiton zaŕak naiago dio
su ondoko epelari.

Urte zartuak eriotz bila
etzan nai luke burua
baiña azken lagun gafazki zaio
ugin-aldien ulua.
Non il, lufean eta itxasoan
ezin bilatu lekua...
¡Zartzaroaren antz-irudia
besterik ez da negua!

Eguzkirik ez egun guzian
otza ta iluna gau yaki,
neguak zenbat samin-gai ditun
artzaiak ondo badaki,
Ardiak gose, otzak il bear,
elufik ezin ebaki,
zoritxafaren eraso latzai
bultzaz naiko lan dabilki.

Astiro yoaz dulun dulunka
ardi zintzafi dunbotsak
¿itunagotu baizik litzake
itundutako laiotzak?
Zapuztu ziran artzai arteko
oles ifintzi zofotzak...
¡Gafatz aldien sakona baizik
ez du bilatzen biotzak!

Baso piztien babes leku dan
arkaitz arteko txapalda,

elufik urtzen ez dan lekua.
negu guzian itzal da.
Basakatuak onera dakar
afapatzen dun oilanda;
azariantzat ezufak utziz,
mamirik onenak yanda.

Baso ertzean altxa ta yetxi
«koak»ka dabiltz beleak
bilatu nairik orbel tarteko
ezkur ta gaztain aleak.
Pizti beltz oiek, artzaia baiño
ekaitz igarle obeak
goititik beruntz yanbiña datoz
galdu ez ditzan goseak.

Erauntsi babes txilar-pe gorde
ta kuzkur dagon erbiak
lotan dagola ere bildurti
zabalik dauzka begiak.
Elur gainean biña ez dezan
aztafenik eiztariak,
bere txokoan igaro oi ditu
neguko ekaitz aldiak.

Izadiaren gelgai apaiñak
gordetzen dira neguan,
itundasuna itzalpekari
sortuaz bere lekuan.
Samin aldiak ezin bialduz

biotzak ere badu lan,
poz iraunkorik ifioiz bezela
ez dago bere baruan.

Negar begiak, negar biotzak,
zerua ere negafez;
eroritasun au zuzpertzeko
¿neguak zer du? Ezer ez.
Atsekabea eratzen bada
gure gogoan ain ezez,
geienok degun izamen ori
min-emanlari da berez.

¿Non da basoko edertasuna?
¿non dira txori taldeak?...
¿non, luñak zitun beste apainki
asko ta ezin obeak?...
Agian, ilak dauden bezela
lur-pe betiko gordeak?...
¡Ez! Ufen dira, muiño ta zelai,
udaberiko loreak.

Muxika'tar Emiliano.

EUSKO - POEMATXOAK

II'gafen

ZATIA



Loidi'tar Paben

Zarautz'ko V'gañen Eusko-Olerti
Egunean Eusko-poeneta'ko lenen-
go saria bere "Orio'ko Umezur-
tza"z irabazi zuan olerkari

Orio'ko Umezurtza

V'gañen Eusko-Olerti Egunean, Zarautz'en
1934'go Garagañila'ren 10'an ospatuta-
ko sariketan, Eusko Poemaetan lenen-
go saria irabazitakoa.

Kaio-sail aundik,
utzi gaur ainbat ur-jolas,
ta Aranañi'tik
ego-jasoaz,
Talai-mendira dijoaz.

Mendia zuri;
asafe beltz itxasoa;
ekaitz-urduri;
naspil-giroa...
belearekin kaioa.

Atzo giroak
odei-muru beltz kizkura;
—berun-mordoak
alda makura—;
zuri arin gaur elura.

Erio dabil...
Len aritz eze sendoa
orain ezur-pil;
zafunbiloa
orbela biltzen dioa.

Gau iluna da...
Gizadi-griñak ixilik.
Otoi-dangada
itunki itzulik
yoal zafean zintzilik.

—Nor il da?—galde
atsoak leio zulotik—;
lau afantzale
goibel, burutsik
kalean gora zeaztik.

Andre gazteak
ufatu du leio-iluna...
Afantzaleak
biotz astunaz
so nagite alarguna.

Gau iluna da...,

Ama-semeak
irauli dira kaiara.

Ekaitz-aizeak,
galdetu ala,
ifiz darantzu il dala.

Erio dabil...

Etxean...

Aztafenik ez...
erian min-zufunbila...
Biotzak iges
senide-bila
—itxadopena erdi-ila—.

Belaunikatuz
otoi-agurtza etxean;
biotz-izutuz
semeak negar
amaren aldamenean.

Lotara dedin
aitari musu eman nai;
baiñan gaur ezin...
Samiñez ernai,
gau ontan oia latza bai!

Amak zotinka
aldean otoi gogotik.
—Aitatxo!—deika

laztan-egafi
zurtza yeiki da oietik.

«Ba'dator aita;
tira, semetxo, lo egin...
goizegi bait-da...»
lñolaz ezin...
Zurtzak loa ez atsegin.

Malkoz-itufi
amak begiak negafez...
gogo-biufi
ezpaiñak pafez
semea poztu beafez.

Nabari ufundik
Erioa'ren algara...
begi-leiotik
biotz-ikara...
dar-darka befiz lotara.

Ekaitzak txistu;
dar-dar aritzak besoa.
Eguna piztu;
beltz itxasoa...
—«Aitak noiz arte du loa?»

Argi ezkerro
ama Yaupatik goiz bira.
Zaletsu gero

itxas aundira
goiko leiotik begira.

Gero...

Ontzia galduz
bigafen ilunabafa,
ta, ai jez azaldu!
Bai samin dala
zurtz-alargunen negafa!

—Eup!—itsas-deia
aldameneko atean...
samin-erdoia
une berean
zartaka biotz-muiñean.

Egunak luza
ta aste osoak igaro;
ta artean zurtza
laztan itxaro—
atsekabetan luzaro.

Zoro lez dabil;
amets oro oi-du sinistu...
egun-argiz il.
gabero piztu...
erne-aizeak min-txistu,

Geroago...

Efeka pir-pir
oian-itzalez gain-bera;
zelaian kir-kir...
Adiña aufera;
oroipen beltzak atzera.

Txorien otsa
luma-beñitan egari...!
Zurtzaren poza
leen-lan-sari
ekafiz bere amari...!

Zantzu txar...

Mauritan guda...
alargun seme bakafá
arakotu da...
Ala-beafá,
bai lege-austen azkafá!

Agur...

Tolarea blai, ardatza trinko
gofi-gofi pats-kondafá
dariola azken-negafá;
mendian bera kafaxiz dator
yauzika gurdi-sagafá.

Telape-maiztar enara alaiak
aldendu ziran ufuna;
kabian orain utsuna...
Etxetik at gaur zoruna...
atzefiratu beaŕean da
amaren txori kufuna.

Laztan-ituŕi amak onela:
—Mintza zuk beti Euskera;
iñoiz okertzen ba-zera,
entzun Yosur'en aŕera...
—Ez estu, ama; emen naiz beŕiz
gari beŕitan etxera.

.....

Itxas-bular anpatuak
gaiñez ibai-sabela;
ur biziak txipli-txapla;
kulunkaz lo batela
—gazteak bart ain laztanki
lotu zuan «Berdela»—.

.....

BULTZIA

Geltokian

Emen dek
su ta gar

«Mamu-beltz»
arnaska;
abi-austen
indarka,
«toki neri!»
dearka.
Befeun oiñez
dana
burdin,
año,
arin,
zai daudenen
nai-aurka.

Biotz-mami zaurituan
txistu zofotz bultziak...
Fafa-fafa! ba'ziak
uxaz baztar guztiak...
Azken-agur... malko min bi
amatxoren begiak.

«Agur Orio!»
mindunki dio.
Biotz-osiñak
malko dario,
ta azken-pozkida
lausotzen dio...
Agur Orio!

Bidean...

Bai gora,
bai bera,
bultzia
urduri;
batera
bestera
subea
dirudi.

Ibaiak
alaiak
atzean
bipil;
mendiak;
zelaiak
leizean
amil.

Aizkoñi
etoñi
danean
urbil,
zatoña
pizkoña
lurpean
murgil...



Kideko befeun gudari
miñak aztutzen kantari...
Amaren zori,
oroi-laiñotan igari...

.....

Zulotik
irten,
txistu bat
eten,
ta aufera
lerden
piztia.
Araba-zear
egiñaz dear
biurtuz
kedar
aizea.

.....

Gazteiz'en oldar batez
arnas artu ta an-tziak!...
Agur euskal-mendiak!
Ordezkari
gogaikafi
Kastela-lur gofiak...

.....

Oldoztun...

Ilun-abar oroigafi...
Sargori aize epela...
eresbatun gogaikafi
txori-ordez igela;
garopean igar, udan
gailurtu zan orbela...
Amak negar, semeak min...
kulunkaz lo baiela.

Gau-sapaian ilargia
goñi-lotsaz bezela...
an batzen ama-semeen
zori bikoitz ergela...
Añantza-aro... baztañean
kulunkaz lo «Berdela».

ZORI TXAÑA

Bir-Zurtz...

Azken-leinuru
goñixka osertz-kolkoan...
Etxetxo-inguru,
zori gaiztoan,
bele-sail beltza zijoan.

.....

Sutunpak zauri
mutila guda nastuan...
Amak igafi...
bere bafuan
aiztoa nabaitu zuan.

Zipitz zofotzak
begiak lertu musuan...
Ama-biotza
lafi estuan
ilotzik geldi orduan.

.....

Zurtzaren lelo...

Itxu nakarte,
bir zurtz, gudatik etxera...
Orain il arte
—zoti minbera!—
biziko ba-naiz, eskera.

Zorigaiztoan
ufundu nintzan etxetik...
laztan-aroan
maite-bear nik,
ta itxu zurtzak ez maiterik.

Etxe-atadin
ixil-unea det entzun...
«Ama!» deiari

kinkik ez iñun...

«Txuri» bakafik nik lagun.

.....

Zorun-kabian

nintzan yaioa.

Adimen-loa

lertzean

sartu ninduten

—ene! ta nola!—

negar-kaiola

beltzean.

Zorun-eztaiak

auzoan safi;

oien egafi

ni ziñez;

eta bein ere

laztan-garaian

neretzat maian

toki ez...

.....

Itxas-ertzean

goizero oi det nik eskea.

Negar batean

—otoi-zalea—

igarotzen det bidea.

Aizeak ifi;
dardarka zugaitz-adafa...
nik ere lafi
ortzetan pafa...
baruan ai! min-negafa.

Dearka aitari
dabilkit biotz goibela;
murgil-igari
afai bezela
ufatuz itxas-sabela.

Arkaitz-gaiñean
berari il-afi nik yaso;
ta ik, bota artean
diok eraso...
gofoto aut nik, itxaso!

.....

Ortzean zintzil
geitu ta, plixt! ur-tixtila...
Alatsu nabil
goseak ila...
...Erio, noiz auket bila?

.....

Betiko Pakea...

Goiz-aldea da.
Elufa... Griñak ixilik...
Iñen dangada
ifunki itzulik...
yoal zañean zintzilik.

Zurtza da il dana,
iltegian deika amari
seme laztana...
Ifunki «Txuri»
aldamenean zaunkari.

Soin izoztua
amaren gurutz-ondoan
besarkatua.
Ifi aboan
biozgeturik zegoan.

Loidi'tar Paben.

Il'gañen Eusko-Poema

EUSKO-ARTZAIARENA

Zaitegi'tar Yokin, S. I.

Poematxoaren muiña: Kantagaia, oi danez, azaldu ondoren, udabefi-argitan menditik-bêra dator artzai sendo bat (1-5). Baselizan Andra Mariari eskaria egiñaz, zergatik zelaira dijoan lainoki azaltzen du (6-9). Gero, bide-nabar, zenbait gizaseme arkitzen (10-17). Azkenez, yoan eta yoan eta gazteen batzafa arkitzen du zelaian (18-21).

Bertsolari iduri, bere bizikera azaltzen du artzaiak: bere bizitokia, beste artzai batek utzi zion pitxia, t. a. (22-25); bere amaren eriotza (26-28); negu-gauetz euskeldun aipatu bat eldu zan txabolara, Euskelefiaren befi yakin-miñez (29-39); Euzkadiren pake ta bufuka latzak aiton ao-ederekek yalkitzen ditu (40-48); euskeldun bizar-beltzak Euskelefiaren zoritxafa areago azaltzen du (49-54); zelaira yetxi zan gizon bizar-beltza, bere anaiei artzaiagandik ikasitakoak bafeiatzera (55-56); aren oroi goxoa artzaiak gogoan (57); artzaiaren aitonak, iltzean, gizon bizar-beltzarentzat uzten ditu bere oro (58-65).

Artzaiak bere esana amaitu ondoren, entzule batek erantzuten dio gizon bizar-beltzaren eriotza aita-tuz. Baiña, eurak, aren aldaska befiak dirala ere esaten dio (66). Artzaiak, mendiz-mendi berakin etortzeko asmoa gazteei azaltzen die (67-68). Yoan dioazela Irakasle zana agertzen zaie aolku onak emanaz (69-70). Añezkero, gaztedi osoa abotsaren atzetik doa (71). Eusko-artzaiarena buka ondoren, bertsolariak oi dutenez, napar beltza eskatzen olerkariak eztula aldentzeko (72-73).

Eusko - artzaiarena

1

Eusko artzaiarena
det nire kantagai.
Kerixaren lorea
aizek eraman nai;
Ofela balerama
egun nere gogai,
alaituko ziñake,
mendi goiko anai!

2

Ingurun, udabefi;
zeru, argiz oztin;
eusko-basoak pozez
lertzean, ofimin.
Mutil maitasunafen,
nexka, egon ezin;
itxaso paketsua,
ortzia lez, urdin.

3

Artzaia, mendiz bêra,
 orduantxe dator.
 Zugaitzetan kantari
 xoxo beltzak txor-txor.
 Alare, mendi-seme
 dei xuriari gor.
 Urduri doa, biotz
 -pakea ezin sor.

4

Ura, bai, mutila, ura!
 Arpegi sendoa
 mendi-eguzkiz yana;
 kozkortsu besoa.
 Gorosti bezalatsu,
 zaintsua gogoa.
 Bekoki ederean
 zabal ortzondoa.

5

Ufats-luze zetofen
 malda bêra zear,
 yo ta yo eten gabe,
 asnaska ler bear.
 Gau ta egun ibiliz

zido fetan bakar.
Zirudinez, artzaiak
barnean deika izar.

6

Bein batez, ufutian...
etxetxo bat zutik
ikusten du. Aruntza
dagi xusperturik.
Baselizatxo zenun
Yainko onaz beterik.
Asabak yasoa, iñork
eztaki noizdanik.

7

Andra Mari ikustean,
ez du zufunbilo
gogo-barnez artzaiak,
bai, baiña, ofilo.
Aren otoiak gorantz,
egaz kardantxilo;
ez da gelditu burni
-soiñan korapilo.

8

«Artzaien Ama Birjiñ!
Noiz arkituko ote,

nire basoan oiu
egin zun erkide?
Atergabe ikusmiñak
mende narabilte,
ta, Begiok itzuli
nire biotz-Maite!>.

9

«Eusko-bizar-beltzaren
yafaile onak, non?
aitonaren aginduz,
oien eske edonon
Artzaien Neskuts-Ama!
nire orde ez egon
gure basoaren zai,
ta artaldea yagon!»

10

Elizatik irtenda
eiztari bat arki:
Artzaiak.—Eusko-bizar beltzaren
ikaslek ikusi?
Eiztariak.—Gizona, zer diozun
ere eztatkit, noski.
Ta eiztari, auferantz,
eiza-zale izaki.

Gero, aldapa-bera
 doa artzai-gaztea.
 Inguruko zugaitzak
 ifikan lorea
 Liluraturik dator,
 goiz-argiz asea.
 Bidez ikus urtedun
 lugin agurea.

Agureak.—Nora oa laisterka
 gazte begi-eder?
 Artzaiak.—Euzkadi barna noa,
 baztefikan bazter...
 Agureak.—Samiñak ditukezu
 edonun, egalper
 iduri». Auréxego
 atso zar bat dager.

Atsoak.—Artzai beso-zaintsu oi,
 nekaturik oa.
 Sar adi nire etxean
 ta atsedén gogoa.
 Artzaiak.—Nire zai sorgiñ lirain,
 zabalik leioa,
 ta ifi-pañez kukuka
 beraren aoa.

Artzai-neskak.—Basoko zugaitzetan
 usoa egalez,
 ase nairik gosea
 gari-pago-alez.
 Mendiko artzai gazte,
 neskatxen belduñez,
 amets-bidetan barna
 dioa lasteñez.

Artzaiak.—Mendian aurten ez da
 apuru loratu;
 nire suz igarturik,
 zure urez berdetu.
 Artzai-neska, alkafeekin
 bizi bear degu
 euskotafen Amatxo
 sendatzen badaigu.

Basetxe-neskak.—Ain arin nora zoaz
 mendi-goiko artzai?
 To itzik nire zofoko
 edari ta gaztai.
 Artzaiak.—Artizafak bezala,
 nire baitan dirdai

ire basabegiok,
neska basetxe-zai!

17

Ala ere yun bear.
Arbasoen efi
otsorik zakafenak
baitigute irauli.
Ta aitonak il zorian
emandako befi
alde ta aldi orotan
nai det aldañi.

18

Udabefi-argitan
gaztain-koloreko
begidun euskelduna
badoa naroro.
Mendi-pakez kantari;
arantzak, oinpeko
lore egiten dirala,
islaz diztiago.

19

Yoanaz bazioan,
aúferuntz su ta gar,
baso-itzaletan bêra

mendi-egi zear.
Bide-okergunetik
dantzu garbi xamar
zelai inguruetako
euskeldunen oskar.

20

Gero, ara! badakus
gazteen batzaña.
Oro begira zeuden
gure dantza azkaña.
Ezpata-dantzariak
belaunen indaña
neurtzen. Ordun artzaiak
barnean dardaña.

21

Zelai-erdin artzaia
sartu zan beldurke.
Ura agertu zaneke
yaia eten dute.
Bereala inguruan
oro, zar ta gazte;
ta guziak galdeka:
artzai au nor ote?

22

Artzaiak ao-ixiña
uñezko giltzez

ideki, ta, gazteak
ler pozaren pozez.
Barneko txoritxo
bere abots leunez
egaka baitioa
entzuleen gainez.

23

Artzaiak.—«Yon artzaia nauzue;
gaitzizenez «Txiki».
Gazte euskeldunok! entzun
izkutuen befi.
Aritzek bizileku
ta ařanoek kabi
ditutenen ondoan
bizi izan oi naiz ni.

24

Anai omen zaituet,
oraindikan orain
esan didanez batek.
Ura bai zala artzain!...
Eztei-egunetako
erestuna bezain
maitero gordetzen det
aren pitxi bikain.

Ainbeste ezpaitet maite
 nire artzanora;
 ezta aitonaren aitak
 egin zun aizkora.
 Abendakiko odolak
 biotzetik gora
 oroigaiak dakarzkir
 garretan gogora.

.....

Aurtxo nintzan oraindik.
 Garo eta luña
 teilatutzat zituan
 txabolatxo zaña.
 Aitonakin batera
 nire ama azkara
 bizi zen. Bertan yaso
 nik azken-agurra.

Nire ama gaixoak,
 txabola txokoan,
 dardaraz musu egin

eta esan zidan:
¡Ene semetxo! ¡agur!
ama yoatean
otoi! beraren alde. Ez
aspertu txabolan.

28

Zerura egaz egin,
eta ordudanik
ez nau egundo utzi
zearo bakarik.
Uda-gau garbietan
izar-yantziz kirik
ta negu-ekaitz gaindi
nerau babes nairik.

29

Auspean sugarik ez,
egur, ke-yario;
ordun, befiz, aitonak
aizematen dio.
Eta suak gafetan,
sorgiñen ario,
zantzoka, eten gabe
txinpar daragio.

30

Negu-gefi; iñetiak
zerion eldefa;

apari-lapikoak
baitzun koipe edefa.
Oinaztafi argitzen
etxeko baztefa,
ta ordaiñez utzi zun
oroigai kaldefa.

31

Aitonari, basoan
lenbizikoz il nun
otsoaren kontua
kontari niardun.
Elur-gaupean geunden
sutondoan. Ordun,
bat-batean atea
nork-edo-nork yo zun.

32

Nire ustez ifintz batez
mendi zezakean
ikaraka ezafi.
Abots sendoa zan.
«Eup! artzai euskeldunok!»
Aiton-arpegian
samiñak dirdai zegin
abotsa aditzean.

Bidekatu danen bat
 dek ta Goiko-Yauna
 ofen bide-erakusle
 mendi-baso barna:
 aitonak esan zidan.
 Eta, artez, esana
 esan atariruntza
 yoan zan aitona.

«Eeee...up! Gau on bat
 Yaunak dizuela,
 Euzkadiko artzai oi,
 nerauk nai bezela.
 Badakizute, onez
 etor gatozela.»
 Abotsak zoliago
 ots egiten zula.

Atea zabaldu zun
 aitonak laisterka.
 Gizon bat, artzai iduri,
 begi-zoli dauka.
 Ortzargi, bafenera
 dator oartzaka.

Ta aspaldiko ezaunak
bailiran besarka.

36

Yaunak zainduko al au!
esan zuen bipil.
ta yarlekutzat ar zun
sutondoko subil.
Txinparten argitara
ageri zan zurbil.
Gure artean arki
opa zuen ubil.

37

Gero, ifi egin zidan
begi-sista batez.
Nire aurtxo-buruak
bete zun ametsez.
Ta nire aitonari
galde yakin-miñez:
aren biotza sutan,
bekokia gañez.

38

«Esan, artzai, afenez,
arbasoen befi;
Txabolaren kondaira
gogora ekañi.

Ire guraso zafak
egiñen egañi
nauk. Mendian yazoak
nire añez yañi».

39

Aiton ao-edeña
asi da kontari:
antziñako oroigaiak
eltxotalde iduri.
Gogo-biotzez gora,
itzak buñundari
doaz, egurats goibel
barna egazkari.

40

«Gure aitonen aitak
ez ditugu iñongo,
euskeleñiko baizik.
Gu ezkera iñoizko.
Izkeratzat euskera
degu sekulako.
Euzkadik euskelduna
du bere kabiko.

41

Ura ziñez edeña,
edeñik badago.

Nire bizkar pafe egin
ezpaitezu gogo:
Egaz diardun saia
baiño azkeago
euskelefi liraiña
bizi zan lenago.

42

Txabola-ormatzañak
urte-iximak zintzil.
Mendiok entzun zuten
antxiñan ixkanbil
lkusten dituzunez,
oraingoan ixil.
Baiña, be aldekoek
euskoa ezin il.

43

Artzai ziran guziak.
Gure mendi-egi
arbasoen etxe zan.
Amets beltza egi!..
Yentilak zapaldurik
beingoiz gure tegi,
ostu neskatil ona:
Aien biotz-begi!

Abarkadunak ziran
 biziak aiufiz.
 Urtez makufak ere,
 besoz zaintsu, befiz.
 Etsaiak menderatu
 ta ezufak autsiz
 irabazten ospea.
 Eusko-izena sariz.

Guda asko izan ditugu
 yundako urteetan:
 Guziak agindu nai
 gure lufaldean.
 Pakean, geron esku
 geunden bitartean.
 Garaiz gera-ta, befiz
 saiatu gaitean.

Egiz idatzi bada
 edesti-papera,
 euskeldun odol-gogoz
 garbi zindo gera.
 Berpizkunde-biderik
 ezin âl aukera...

Ongi ausnartu eta
goazen batera!

47

Gizaseme gaiztoak
zirala erudun,
euskotañok ondatu
gera gau ta egun.
Ilunpean, Euzkia
gugandikan urun.
Norberaren biotza
sumendi dagigun!

48

Oilalokak azpian
txitalde erukafi:
seitik iru il dira-ta,
besteak elbafi.
Pizti gaiztoen izuz,
ume aulak lafi.
Zigor onen menpean
gaur da Euskelefi! »

49

Ixildu zan aitona.
Gizon bizar-beltza
asi zan mintzalari,
usturik biotza.

Begi negartiz zegon.
Nire itzak, izotza
aren itzen aldean...
Sutu, Yauna, otza!

50

«Euskel-eriko artzai!
Orain amar urte,
gure abefi ezaun
nairik atez-ate.
Nire anaiak, beñiz,
entzungo balute,
zorionik onena
izango lukete.

51

Akeñaren adaña
baiño legoñago,
aritz deuna zelaian
zutik omen dago.
Euskeldunak ez du nik
dedan ainbat gogo,
zugaitza berde egiñik,
beñiz piztutzeko.

52

Buruzut egon ezin
gure aritz zaña.

Aspaldidanik dagit
gogotik nigafa.
Nire efikoak, baiña,
iseka ta fafa:
poza sortzeko ezta
alaibide txafa.

53

Zoritxañez sustefak
blei-blei dute izotza.
Arbola ori dago
aspaldiz il-otza.
Ta ofela ikustean,
alai oi da motza;
samiñez erdibi zait
barnean biotza.

54

Goibel bizi naiz eta
ilko banintz obe...
maite bat maitatzen det
izaririk gabe.
Baiña, iñoiz ez izango
aren biotz-yabe.
Etorkizun-odeiak
beltz-ilunik daude».

Añezkero... irtetean
 beñiro laztandu
 ta gogoz esan zigun:
 «Artzaigana erdu!»;
 Zelaikoei esango,
 aritza berpiztu
 nai badezu. «Ta zuek
 gure eña zaindu».

Negañez, ardibide
 zear bêruntz yo zun...
 Nire aurtzaro zuri
 ordudanik uñun!
 Bizar-beltza ezkerro,
 amaikatxo egun
 yoan dira añapaka
 euzkiren ingurun.

Mendian geundelarik
 eguzki-berotan,
 gure pentsamendua
 lekuri askotan.
 Aitona eta nerau
 biok beñiketan.

gizon bizar beltzaren
oroia gogoan.

58

Egun batez...aitona
ardi bila doa.
Mendi zulo beltzean
atustan otsoa.
Ni ataritik deika.
Neronen gogoa,
ifintz zoli egiñez,
aldezten basoa.

59

Mara-mara, ater gabe,
ari da elufa.
Ikusbegi osoan
zuri dager lufa.
Biderik ez ikusten
...eta irist makufa
egin aitonak. Deika
ari zait zakufa.

60

Mendi-baso bafena
noa abazuzaka;
amiltegiak zear
nabil oartzaka.

Galbideak burutuz
yetxi naiz laisterka.
Elur-gaiña odolak
gofiturik dauka.

61

Aritzaren ertzean
aitona etzanik.
Aitona! esan nion.
Ots oro alpeñik.
Lepoan txabolara
nuan ilagiñik;
Ordea, oraindiño
zegoan bizirik.

62

Aitonak egin zidan
biotzetik agur:
«Atzeñi-maitakeriz
ez ibili makur.
Otso beltzen afean
ez adi lotu uzkur.
Nire esanak safitxo
gogoan irakur.

63

Ni ilda gero, ekañi
gizon bizar-beltza.

Arentzat nire oro,
artalde, eskaratza.
Gure oitura zafez,
zorion bizitza».
Laztandu niñun. Eta
gero ilotzik datza.

64

Mendian bizi eta
mendi bertan ila.
Ura lurperatzean
ingurun ixila.
Inoiz ibili gabe
giza-aipuen bila,
aren berdiñik bada
azaldu dedila!

65

Aitonaren aginduz
zuengana nator:
Eusko bizar beltza, nun?
esan, aŕen, bizkor.
Erantzun beldur gabe,
etzazute zoztor.
Ta entzule artetik
batek miñez aitor:

Gazte batek.—Ura gazterik il zan.

Baiña aren erioz
 piztu giñan euskuok.
 Olatuen oñoz
 itxasoaren babes.
 Ats artzen gau oroz
 bere ilobin bidaztik.
 Ura gera gogoz!

Artzaiak: «mendiz-mendi
 euskotar gazteak.
 Guazen aldatzak gora
 mendigoizaleak.
 Aize osasuntsuaz
 bizitza indartzera
 Abefi guztiari
 agur egitera».

Tan-pañan, pa-tan, pañan,
 azeri suari
 aizeka, asto txistuka,
 akeña dantzari.
 Erbia irin eralkiz
 ezari-ezari.

—Artzai gazte, mendiruntz.
baso-yaun iduri.

69

Goruntz zijoaztela,
eguzkitan blei-blei,
ara! ikusten dutena,
ao bat-batez dei:
Ikus! gure Irakasle,
entzun aren otsei,
gure bide guzien
zuzendari izan bei!

70

«Neure semian seme,
neure iloba laztana,
ezeik aitzu aitonak
irakasten dauskana:
Lenen maite egik beti
geure Yaungoikoa
eta onen ufengo
Euzkadi geure Ama!»

71

Beraxe zan kantari!
biñ zuten Yauna.
Guziak biotzetan
egafi zutena.

Eta gazte-taldeak
doaz arat-ona,
abotsaren atzetik
eusko-mendi barna.

72

Eusko-artzaiarena
buka det, ta mintzul
mingaiña ta arpegia
lotu zazkit margul.
Eskeñik ainitz orde,
gogo-osasunez aul
enadin, ekark beltza,
aldentzeko eztul.

73

Ekañi, adiskide,
napar ardo zaña:
ofelan ixiltzeko
bañeneko aña.
Ilak pizturazteko
omen du indaña:
ekañi ontzi-bete,
baitizut beaña.

Amaia

Zaitegi'tar Yokin, S. I.

GURE-OLERKARIAK

III'gafen

ZATIA

Gure «Lizardi» eta «Loramendi» biotzekoak il ondoren geniona, diogu orain ere: Yaungoikoa'k euskal olerti baratztatik, igartu baiño lenago, lore mardulenak eta usaitsuenak kendu zizkigula.

Etzigun ordea, gure baratztatxo ori soil eta lur-gofi utzi. Baizekian Goi-koak euskaltzaleak olerti-minez yota geundela. Bereala ziritu zizkigun landare beñiak. Landare oien kimatxoak bildurik emen usaitu zenezazke.

Olerti kima oiek Yakintza'ko ofietan lertu zaizkigu. Lertze ofek lore margodun eta ats goxodunak erakutsi dizkigu. Urte beteko lore batzuk besterik ez dira.

Igaz, atzo ezkeroztik lanean dabil-tzan Yauregi eta Tapia Perurena'ren bertso sortak argiratu giñuzen; bai ba-daramate olerkari yaio oiek urte mordoxka lanean!

Aurten oraintsu lanean asi beñiak diranenak argitara dakarzkigu; Gaztelu, Erkiaga eta Onaindia olerkari gazteen bertso saila.

Bertso oien lore-ofi apaiñai aizeak zakabanatu ez ditzan ementxe iraunkor bizi araziko diegu.

Uso bi iduri

S'tar Edurne ta M. Terese Aiztai.

Usotxu luma urdin, bikote ikusgafi.
barne donientzat oso betegafi
Egaka bai'luaz, or duaz alaiki.

Ezta agiri iguzki; goibel gaur ortzia,
odei-gibeletik digorsku argia.
Aizta maite biak etxeruntz abia.

Aizatxo bi oek—uso yanzki urdin—
elizatik urten dira yanzkiz bardin;
eleiz-zapi baltza, gefiko gofimin.

Neskatila lirain, urtieri pañez,
kutun dabe alkar aizpa-maitasunez;
an duaz añaiki etxera bidiez.

Argi bekokia ta biotzean poz,
pozez beti dabil yagi oi dana goiz.
Ta maite diranak atsegin, edonoiz.

Uso zuriñoak goian ega-ukaldi,
aizta biok uso luma urdin iduri.
Egaka bai'luaz or duaz maitati...

Erkiaga'tar Eusebi.
(«Endaitz»)

Etxeko poza

Ene alaba, biotz zatia,
kutuntxu pinpilinpauxa,
entzun maitea, ene lorea:
«yan eingo aunat mosuka».

Eure seaskan ez nai egon, e?
maltzur-zar tolesgabea;
erdu, ba, neure besoetara,
txikitxu lotsabagea.

Gaur, be, «drogatxu», ez aiz asi, ba,
goizean goizik negaitez?
Uste al don zai gagozala, ire
edeña egin beaitez?

Orain bañe, ezta? «matuñangatxu»,
eureaz urten ostean...
Ekazu mosu, etxeko poza,
...ta egin lolo bakean.

—

...Lo, lo, lo egin, baba-lorea,
udabafiko lilia;
ta entzun ames gozotan Goiko
soiñu ots zoragafia...

Erkiaga'tar Eusebi.
«Endaitz»

Ezkontza

Txit argi ortzia—Egun-maite lenen—
urdin dana eta gofixka ekalden.

* * *

An ooltza-erdian Kisto dago zutik;
esku oiñak untzez, gorputza zintzilik.
Mutil bat auzpeztu, alboan ezkongei,
apaiz ta laguna, lekukoak ogei.

Amaika begi gaur zueiri begira!
Erastun arek bai maitezko distira!
Zidafezko azlau txukun ta zurian
ara, amairu diru: andre-saneufia.

Emaztea diruz erosi al dozu?
Ez, yopu ez da-ta. Kisto'k emon dautzu.
Etorkizuna, ustez, amesti, zoritsu:
baiña poz-artean zenbat gurutzetxu!

Kisto'k gurutzetik onetsi zaitue;
zeuen nai bizia gaur bete dozue.

* * *

Alkarberaatasun Yainkoa'k sortua,
malko ta atsegiñez bedi oretua
gero izan daitean osoz saritua.

Erkiaga'tar Eusebi.

Goiza

Goiza, Yauna'ren opa-abestia;
goizez, Eguzki'k, yaikitze;
txoriek leen-eresketa gozo,
bigi lilien yaiotze.

Ekaldetik mee, argi-zifinta,
ots astun dofe-yualek;
argi-antz nabar, ufetsu gero,
agitz naro, yaun orail'ek.

Itxasoan izla zidartsuak,
—Eguzki'ren maite-emaitzak—,
are edefago legor-aldean
aunitz margoz argi-brintzak.

Goiza! ikuskari bikain-asea,
baritua egunoro,
lan-atadia, alpeñak etsai,
biziontzat nai-ta-ezko.

Izafak agur, afatsera-arte,
egin dautsoe lufari;
Eguzki gozo, eguneroko,
emon poz baña guri.

Erkiaga'tar Eusebi.

Argiñe

Putz- egian bigun
ego-aize-meiak,
legun erabiltzan
ofi eta adafak;
astegun zan, eta
udazken-giroa,
aize guzietaz
buru zan egoa.

Oi, goizaren eder,
biotz-pozgafia,
goiz artan bai-neban
izan poz-aldia.
Enparantzan, betaz,
yafirik nengoan;
aufez-aur eleiza,
etxeak ondoan.

Enparantzan oste
gaitza sal-eroska:
batak au agindu
ta besteak uka.

Lasaiki nengoan
noranai begira,
enparantzara ala
eleiz-atadira.

Alako batean
zabal zan atea
eta eleizatik
urten zan maitea.
Apalki yantzia
ta biotza garbi...
Bera izango al dot
ene bizitza-argi!

Erkiaga'tar Eusebi.

Zeruko biziaz

UNEDER irazaile,
Ez galdaz, koilaz ere ez-tigarken
Goiko zorion-lafe,
Lur eze-emakoién
Betiko poz-emaile yori, garden.

ULEDI ufe-guri
Lepo urdiñez yarein Luñin-Lore,
Lafe gozora digi,
Abail-makilik bage,
Artzai-Onak igan bere artalde.

TA doala, zoruntsu
Dañazkan ardiak, ilezkor, Lili—
Lorez bazkatzen ditu:
Loredi eder, bizi,
Gero ta yanafén ernemiñ beti.

GERO mendi-mendian
Goi-oneruntz, pozkarbi uretara
Ba-daramatzi, bertan

Artzai ta bazka Bera
Ta zorion-ona dan main betera.

EGUERDIAN ortzeko
Gingara danez eguzki bizia,
Artaldeak, abaro,
Lo-kuluxka geldia
Egin guraiez, ots-dagi zolia.

ALBOKAK dabes ozen,
Ta ilezkor ezti barnera dario,
Ufe baiño besteren,
Suafen arenago
Yaurtiki, neufige on artaraiño.

Oi ots! oi ots! Nigana
Txintaren bat bederen baletorke,
Ta oro lotu, Zugana
Yaso al-ba-ninduke
Elkar baturik osotoro, Maite!

NEKIKE nun dagizun
Bazkalondoko loxusta gozoa.
Leotzetik yaredun,
Zure artaldegana
Noake aron ibilge zangoa.

Gaztelu Aita.

Alma región luciente'ren ideko. Fr. Luis de León.

Lore igara

Baŕua goibel. Negar-aria
Ixil darorkit begian...
Lorea izan dut eskuan,
 lufiñez zoragafi,
 begien galdugafi.
Gaur malkoak tantoka igafi
 eze beafean.

Baratzan deika ditu afebak...
Ene begi ok—leiafezkoak—
Ez dakuste margodun lorerik
igar zaidan eskukoa ezik.

Tantai nagola neke gogofean
—malko gafatz alen auek legortzera—,
txertutzea baliteke odolera
zurtoin igartua, zornik ezean.

Ordun: margo befia
osto ok yantzitzean,
ta pipilak ifia
gozoro agertzean...

Oi! Nolako bazkari!
Lufiñez asegañi,
begien galdugañi.

Gaztelu'tar Yon Batista.

Begian negaía

(Atzeñi-kanta)

Ibaika darorkit begitik negaía.
Zuuria bai baitut biotzean
atzeñi-arantzez yosia.
¿Nork zauritu biotz-lilia?
Arantzdun dalarik yakiñean
¿nork dagit biotz-ertsipen ain gogofa?...

Biotza sorburu, begiak ituñi,
ibai antzo sor zait abesmiña:
ugiñez gain apar-anditsu...
Eres-otsik, ertzez, ez duzu.
Txoriak ixil. Aiots iluna
bakañik: ilētarien miñ-iyuñi.

¡Ai, Ama! Altzoan oraiño nik abes.
Egun osterá atzeñi-kanta
biotzak: ikaraz, ler-uñen.
Ar egizu, ugeña-añen,
begi itunen malko-ureta.
¡Biotz autsiari darion ileres!

Bai dudan itun ibai onen yoana!
Ezin baitut nik zurera egin
Zugan gogoa... ¡ni atzefi!
Malko-ibaiez ere ibil-ontzi
al-izatea, ene efimin
lafi onek ar lezake atsedena.

.....

¡Ama! Abes ote txoriak kaiolan?
Lufiñ dario lorak nere baratzen?
Ala dut ixil, al zait igar...?
Baiezkoan, ar bezate, ar!
norberak yarduna len ain alaiean.
¡Itunago ager nadin erbestean!

Gaztelu A.

Gogoa Galburu

Yauna! Makur nagokizu aintziñean,
aize-eragiñez galburu antzean...

Zuk erein garia aloñean.
Zuk sortarazi, zuk uñeztatu.
Muiñtzen banazu,
alea yalkiren magalean...

Ez betor txoririk ostu naiez.
¡Zuretzat oro!
Zauri-odolez ore,
biotz-labea eñe.
Ogia... biok yanen gozoro!

Gaztelu A.

Ele-Ama

ANDERE dugu Ele Ama
gandola (1) eskuetan:
izar-argia, lore-usaina
ontzira dakar

Haurhoetik ilobiraino
ezti dario bidari-doan.
Zeru oztin-ninitakoan,
begi-izañek ñir-ñir egiten.
Gogamen-bilbea, izpi-zuntzetara, (2)
Aldi'ren goruan iruten.
Bizi-ekeratik ofobiraino (3)
biotza dula iguzki:
beroaz, argitara
lur-loreen hazkuñi. (4)

-
- (1) Gandola=vaso.
(2) Zuntze=hebra de hilo.
(3) Ofobi=occidente.
(4) Hazkuñi=arrebol.

ELE guren arbasoena,
semên bitxirik maiteena:
ezti gozo, endaren erleena!

Poz yariozko urbegi (1) Abeñian.
gantzukari (2) zauritako atzeñian.
Usai gozodun lorerik garbien,
Maitagañi aiña zoragañien!

Biotzik ez bakaña baiño:
maitea be bakar, zurekikoa,
Abots bakaña nere aokoa,
zuretzat soilki eresioño
bai-du mingaiñak gogortu dediño.

Zure begi-izafetara nago
magalpe beroan etziñik:
bulañetik yalgi eziñik
erleek lore-miazketan antzo.

Ez dut abestu-al izaten, Ama,
izar oiei begira gabe.
Abes egiten orde
zure begipe yañi-ala.

Begi-izafak ez itzali añen!
Begitaraz ate, ¿nork abesturen?
Euren izpirik gabe, ¿nora egiñen?

(1) Urbegi=manantial.

(2) Gantzukari=embalsamador.

—
AMA! Begietan ¿zelan nigafa?
Pilpil samiñez ¿nork yafi bulafa?

Ai! Zein biotzek afizkoa
autsi bai-dizu eskuan murkoa! (1)

Luñin dario murko autsiari
ain leiatsu bildu luñina...
Semeak! ¿Nor ez biotz-bera aski
atson galdua bildu leiokena?

Urbiltzean befiz «erdera» ez mintzo,
zuen abots latzak miñ leio.
«Euskera» nai du, euskera galdua,
zahara baizen befitua!

—
IDAZU, Ama, ao-ats garbia!
Begi-malkoz, biotz-odolez
osatu-al nik murko autsia.
Nere zorion atson ixuria
biltzean, nere eskuok gantxuriñez (2)
igurtziaz bai-nituzke, apaiz yafia.

Gaztelu.

(1) Murkoa=cántaro.

(2) Gantxuriñez=aroma de bálsamo.

Biotz on!

Eusko-olerkitzako ene lankideei.

Atxonez mukuru
biotz-baratzaren
gure murkoa:
lufin goxoa.

Baratzai gaituzu
baratz-langile,
aoa lufiñez
biotza lore.
Ernemiñ bezagun
guk ereiñ ale.

Azaroz ereinik
uztaroz bildu,
ta giro danean
baratza landu.
Azaro ta uzta
urteak buru.

Ereile gaiztoak
oloa biltzen,
ongile-baratzen
gari garatzen.

Zuf-itzez beterik
dabilgun mii,
oloa bastertuz
ereinik gari.
Ereile onarena
guztiok sari.

Ereile-arloa
orotan gaitza.
Legorte dalarik
ala ekaitza,
ez baidakar lufak
ziur emaitza.

Biotz on! lagunak,
ez amor egiñ
Yaunaren begipe
lan oro ariñ.

Gaztelu.

Saratsa ta Itxaropena

Eleizara begira zelai deuna, īl-iri;
negar-itur̄i, bertan, saratsa dagiri:
adar-gailiak bera,
uluak ortzera.

—

Itxintxa aldañi baten gailur goenean...
Ixilik, ufats-labur, īletari-talde;
samin-gezi lakatza ozka biozpean,
kutunak ikustera doa iltegiralde.

Aizeño lora gaiñez,
laban, yostalari,
lerazko zinkuriñez
dabil gogaikañi.

Obi asko dakustan sailez ta zearka;
ona, ikusle, txiro bat, apaiñik bakoa,
ama bere auean, ler-zori, otoika...
Oarge, matrail bera, darorko malkoa.
Īlen biztokitik at,
gero ta miñago,

karnaba oiñazdun bat
txintaketan dago.

Lili zailak, or-emen, bisutsak leifuta;
erio-egal-otsa soilik da nabari,
oro ixil-loan mende; abe, afi-meta;
ba-dogu, ofaitiño, norbait egalari.

Biotz-senak ba-igafen
zerbait ezti zana:
Itxaropen leunaren
goitiko laztana.

—

Yoranez itxasori mosuka eguzki...
Afatsa dil geldiro: gauak bear toki...
Ezkiak zaratoska,
il-eresi yoka...

Onaindia'tar Yakoba
(*Karmeldar Aba*)

Ontziska ta ekaitza

Oi ontziska gaixo,
I bai efukafi!
Zer dagik itxaso
Suminduan lafi?

Nora ua, intxaur-oskol,
Urez afaunketan?
Ugarte ilezkoñaz
Ari amesetan?

Ala, adu (1) itxastafak
Ufuti bilduma
Ta bertara i be dei,
Zorakor ufuma?

Garden-zale, iduriz,
Az, ene ontzi; baiña uf
Dabilkik ekaitza,
Arerio makur.

(1) Adu=suerte.

Ekaitz-efaiak dir
Oĩnaztafi (1) izor,
Bũfunba ostotsak
Odei-ganez sarkor.

Irakin daraki
Ur-zelai gordiñak;
Zurbil (2) yafi dira
Lengo margo urdiñak.

I bafiz aufera,
Ur-galdofak magal,
Uiñen laztan-zale,
Estalkiak zabal.

Azatz gazi zear
Ekaitzaren mende...!
Eřuki damostak
Itxasontzi txume (3).

Zabuka (4), zinkuriz,
Ondatu-zorian,
Izu-lafi abil
Uiñen bizkařian.

-
- (1) Oĩnaztafi=rayo.
(2) Zurbil=pálido.
(3) Txume=diminuto.
(4) Zabuka=a tropezones.

Gain dok ur-mendia.
Gaiztozko zirimol (1);
Ik bañiz intzira,
Baña garaile, isol (2).

Or yatork nasian
Itxaski zakafa;
Po-egiñik, ene!
Iku dok ondafa.

An... laster gaiñik-gain,
Bañiz, igerian,
Apar zuri barna
Itxas-osiñian.

Uin-sabelak yoek
Suleza-indafa;
Ik baiña gaintzeko
Burnezko bulafa?

Oi ontziska gaixo!
Yo lenbailen kaira;
Urageak azkar,
Egik ondartzara.

Eunak aize-mende,
Kai-bidean ekin;

(1) Zirimol=huracán.

(2) Isol=aguacero.

Ekaitza igesteko
Alegiñak egin.

Ez yak noski eder
Ondartza-bafuti,
Erason ofegaz
Osoan berezi?

Ator, maite: aier (1)
Au aspaldiz kaiak;
Itzat naro yozak
Ur oztin garbiak.

Onaindia'tar Yakoba A.
(Karmeldaña)

(1) Aier=echar de menos.

Gaztaro

Bizitz-mailadian ba-da gelune bat
Gizonok erotsu maitatzen doguna:
Gaztaro sorgiña, goitiko altxoña,
Eskar yarioka bafe dagiskuna.

Baiña oar, Gazte; ikuskezu ondo:
Len loran egoan sagasti mardula
Oña ainbarik orain; ifunean datza,
Soil, igar, bizige, il-zapi gain daula.

Gorbei ez daukagu beti txapel zuri
Ezta Eretza be odei-moltzo afez.
Aro ori laburra dok, iraitzekoa;
Zerbait atsedendu, ta yafai beafez.

Baiña ik, kaskarin lez ergel, eugan dagik:
«Poz-aro yoagu, betor atsegiña;
Ifits-ala, yosta-ardoa dadagun,
Azkeak gaitez an oian-sai adiña.»

Ta besteratuko an erio-untzi
Nundikan dabilen bai al dakik, gero?

Ara: gaur, lufuna-bide, bizkor gabiz;
Ainbeste osterera yagizak unero.

Ardurage ori, abil bildurpean.
Untzi gaizkor ori el oi dok ixiltsu,
Ebasle gisan, ta txisturik yotzeka.
Bide-zofoa gert ez-ta, dei ba-zaitu?

Zofo-gertokia ba-degu arean;
Masti beti yator,—Eleiza kistaña—.
An sar ta gabiltzan, naitara dastatuk
Aienen odola,—yainkozko eskaña—.

Onaindia'tar Yakoba.
(*Karmeldar Aba*)

La'osa-legor

Ene biotz edermin, goazen atera
Egafi bizi au pizkat arintzera.

Negu buru soil ta arnas otza yoan-data,
Gabiltzan landara aize-bila eta arbazta.

Zelaien loratzea! Oro erne-naia:
Izadi amandrerren berbizte-garaia.

Dana bizitza bafi. Lufaren antzalda!
Negu'k ilik eukana bafiro biztu da.

Baratza daukot afez; sar nadin bertara;
Ta i, biotz edermiña, lasa adi naitara.

Eguzki adar-gori intz-zelai-zalea-
Gesal-oia laga ta goiztik da yagia.

Maite-mizkerietan diardu baratzan,
Aren lagun, oldozkor, ni bere loratzan.

Baratz oni eun esker, ain dozu beratza!
Ederkun-egafiz ez yat ilgo biotza.

Gari-azi soloan egotzia iduri,
Bafun dabilkit norbait yaio-naita urduri.

Biotz-semeak dozuz, bafuko taupadak,
Yauzkan eguzkitara urten nai leukenak.

Gora doa, lufa ufatuz, sorgin-ira-kimu;
An, bigura be pikor zurizkaz daukagu.

Bizitza danok eder uda el-garaiez.
Ta, bai baratz bai biotz, oro erne gurez.

Lilitegia bai dot bitaiz ornidua!
Dana lore, pipila, adar apaindua.

Ikus-ala landare ta loratan oro:
Akara ta lafosa, zangoñi ta mao.

Ak goñi kukulua, onek buru zuri.
Ezti darioela danak txau ta guri.

Gau-izafen antzean, daukadaz dizdizka,
Aizek ikutzekoan polito zabuka.

Toki zorakor zear ara-ona ibilki,
Lafosondo abar zut edereez dot aurki.

Aize-begira datza, arduraz zaindurik,
Baiña lafosa бага, loreil-erdi izanik.

Ezin etsian nago, lafosondo gazte!
Abar zut, ta lorarik ez; legoía ete?

Uf dabil lora-yoñan gizon bat zaintsua,
Bein gogait egiteke lanari lotua.

Esaidazu, baratzain, yakingura ots nik
Lora-aroan gara, ta an zelan bape barik?

Bai, lora-aro da; baiña, naita ondo landu,
Lafosarik ez dakar; legoía baitozu.

Ofi ezez yantzia, ta antzu! Bat-batean,
Kisto'ren pikondoa senak emon eustan.

Madari-ondoari, zardiña izan afen,
Alerik ez ba-dakar, aizkora ezartzen.

Areitz-enbor igafa mendian zertako?
Etxaldera dakafe, nafaz, sutarako.

Listor ilik ikusi ete erlauntz-atean?
Or nagien zoria. Yarduizu lanean.

Betaz aratu begi nork bere burua.
Ta alegi ontan, bekus, ete dan sartua.

Onaindia'tar Yakoba
(Kalmeldar-Aba)

AURKIBIDEA

AITZOL'DAR J.—Itz-aufea.....	V
------------------------------	---

I'go Zatia

EUSKO-OLERKIAK

ZAITEGI'TAR YOKIN, S. I.—Tori nire edontzia!.....	5
ZAITEGI'TAR YOKIN, S. I.—Kardantxiño.....	9
ORMAETXEA'TAR NIKOLA.—Gure zizak.....	12
ERKIAGA'TAR EUSEBI.—E'rotazuri.....	15
ERKIAGA'TAR EUSEBI.—Neure abefiari.....	17
ORMAETXEA'TAR LONTZI.—Seaska utsa.....	19
ORMAETXEA'TAR LONTZI.—Ama-alabaen yarduna....	23
ORMAETXEA'TAR LONTZI.—Begi-biotzak gora.....	26
AMETZAGA'TAR BINGEN.—Itsaso-aufean.....	28
MUXIKA'TAR EMILIANO.—Negu-min.....	31

II'gañen Zatia

EUSKO-POEMATXOAK

LOIDI'TAR PABEN.—Orio'ko Umezurtza.....	39
ZAITEGI'TAR YOKIN, S. I.—Eusko-artzaiarena.....	55

III'gafen Zafia

GURE-OLERKARIAK

ERKIAGA'TAR EUSEBI'REN OLERKIAK

Uso bi iduri	91
Etxeko poza	93
Ezkontza	95
Goiza	97
Argiñe	99

GAZTELU A.'REN OLERKIAK

Zeruko biziaz	101
Lore igafa	103
Begian negafa	105
Gogoa Galburu	107
Ele-Ama	108
Biotz on!	111

ONAINDIA'TAR YAKOBA A.'REN OLERKIAK

Saratsa ta Itxaropena	113
Ontziska ta ekaitza	115
Gaztaro	119
Lafosa-legor	121

9533

31

597 AK.

9533

31

599 NK







